

ESANAHIA LITERATUR TESTUETAN

Xabier Arraiza

Azken urteotan, filosofiak ezagutzaren alor birjinean emandako urratsak anitz izan dira. Baina muga berriak zabaltzearen ahalegin honetan, auto-lasterketa ospetsuenaren gisa, Hizkuntzaren Filosofia (logika, linguistikarekin batera) izan da ezpairik gabe sari gehientsuenak etxeratu dituenetako bat.

Honen ondorio garbi bat, Jon Barwise eta laguntzaileak beren aurrekontu teorikoetatik abiatuz, subjektibotasunak erditu duen Literaturaren mundu zaharrean eginiko barneraketa esperimentalak izan liteke.

Honela bada, hurrengo orrialdeetan, aipaturiko behatzaileek esanahia eta edukia, bi kontzeptu teoriko hauen arteko desberdintasunak azpimarratzeaz gain, oraindik, are gehiago, edozein testu edo liburu bati dagokion esanahi zuzena formula matematiko $\{C(S, c) = P\}$ baten bidez lor dezakegula esatera "ausartzen dira".

Nolabait, betidanik aske, ukiezinezkoa izan dena, alegia "Esanahia literatur testuetan", orain, formula landu eta propietate teknikoek (constraints, ...) baliatuz menperatzen saiatzen dira.

Izan ere, ikerketa-saio berri honek, gaur egungo doktrina filosofiko-zientifikoek zenbaterainoko sakontasun eta adorez lan egiten duten frogatzerak besterik ez dator.

C (S, c)

C= edukia, /Content/. S= perpausa, /Sentence/. c= Zirkunstantzia, /circumstance/.

bba= baldin eta bakarrik baldin.

Jakin badakigu ere, gaur egun, gero eta gehiago irakurtzen dela. Lehen pribilegiatu gutxi batzuen eskubidea zena, gaur gehiengoaren behar bihurtu da. Beraz, orain gehiago irakurtzen da. Baina normalean, irakurtzen dugun horren esanahia, mezua jasotzen al dugu?

Ondorengo lerroetan, bereziki literatur testuen esanahiaz hitzegingo dugu. Hau da; liburu baten esanahia nola finkatu? Zein da liburu jakin baten esanahia, mezua?... honelako galderen inguruan sortutako arazoez hitzegingo dugu.

Hau honela, guk zerbait esan edo irakurtzen dugunean... honen esanahia non dago? Autorearen gogoan, buruan hala hitzunak eta entzuleak erabilitako hitz horien baitan?

Guzti honen inguruan, badirudi hizkuntzaren erabilpenarekin arazo dextente dauzkagula. Alde batetik, komunikazio linguistikoaren egitea dago; pertsonok, ia beti, gauzak elkarri kontatuz, idatziz (irradi, telebista medio) komunikatzen gara. Guk munduari buruz ezagututako guztia ere, bide honetatik ikasia dugu. Bestalde, hartutako edozein testu edo esaldi-multzo batean, gehienetan, esaldi bakoitzak edo hitz bakoitzak bere esanahi berezia izango du. Kasu hauetan, esanahi horien funtzio egokiak, zuzenak, autoreak bakarrik eza-gutzen dituela esan dezakegu. Azken batean, egilea bera dela egindakoa azaltzeko pertsonarik egokiena.

Ikusten dugun bezala, honexegatik, jende-multzo handietan, esanahi konkretu bat finkatzerakoan, arazo ugari sortzen dira.

Gauzak horrela, garbi dago, problematika hau, hizkuntza arruntetan gertatzeaz gain, aberatsagoak diren hizkuntzetan (hala nola literaturan eta filosofian) astunagoa izaten dela.

Testu baten esanahia "neurtzeko", finkatzeko, testu horren "esanahi" kontzeptuaren karakterizazio independente bat behar da. Abstraktutzat jotako kontzeptu hau hobeto ezagutzeko, termino zehatzez osaturiko kode bat sortzea beharrezkoa ikusten da. Dena den, arlo honetan ere, bidearen hasieran besterik ez gaude.

Esanahiaren inguruan sortutako dilema hau, Borges-en historio famatuarekin ilustratu daiteke: "Puerre Menard, Author of the Quixote". (P. Menard Kixoteren autore).

Pierre Menard delakoak, Cervantes-en Kixoteren atal batzuk berdindin, hitzez-hitz berridatzi zituen. Hala ere, Pierre honek, bere lanak zerbait desberdina esan nahi zuela antzeman zuen; alegia, ez zela berdindin. Cervantes-en testua eta Menard-ena hitzez identikoak izan arren, bigarren honen testua aberatsagoa dela ematen du.

Ikuspegi normal batetik, gezurra dirudi horrela gertatzea; bi testuak formalki berdinak izanik, esanahi desberdinak mantentzea.

Autorearen intentziorako ikuspegi batetik aztertuta berriz, Borgesen historioan, Menard-en asmoa "patroi" bat kopiatzea den bitartean, bestearen asmoa geinu batena izango da.

Lehenengoaren asmoa zerbait konkretua kopiatzea da eta bestearena aldiz, sortzetiko zerbait eraikitzea: inspirazio hutsa. Beraz, esanahiaren aldetik, barne-interpretazioan desberdintasun bat badago.

Gai berean sakonduz, dilema honen beste aspektu bat, hizkuntzaren emankortasunarena izango da. Frege kontutan hartua izan zen instantetik, teoria semantikoen desafiorik nagusienetako bat suposatzen du. Honela bada, espresio berri baten esanahia nola azaltzen dugu? Sekula entzungabeko espresio edo hitz baten esanahia nola demontre azaltzen dugu?

Hizkuntzaren emankortasuna, printzipioz, mugagabea dela dirudi.

Semantikaren inguruan lan honetan dihardutenak, korrespondentzi metodoaz baliatzen dira, hitz bati esanahi bat atxekiz eta bide berean konposaketa-legeak asoziatuz. (Hau da, hitz bat hartu eta esanahi bat ematen diote, eta honela hitz guztiekin). Honi hurbiltze konposizionala deitzen zaio, baina ez ditu hain ondorio onak ematen.

Adibidez, edozein motatako testu batera joaz, "hartu" aditza bere bakartasunean aukeratzen badugu, zein izango da hitz honen esanahia?... Zer hartu?... Nondik hartu?... sagarra edo makila hartu... min hartu. Egoera

honetan esanahia finkatzea oso zaila izango da.

Hitz hau bere egoeran, testuinguruan hartu beharko genuke. Esanahia finkatzeko ingurunearen ezagutza derrigorrezkoa da.

Horrela, beste kasu honetan "hartu" hitza bere testuinguruan ikusten badugu...

"Malkoak bigunduta, zerbait esateko eskatu diot otzan. Erantzunik ez. Haren eskuak *hartu* ditut ondoren: ez du begirunea altxa ere. Besarkatu egin dut: alferrik."

... garbi dago hitz honen esanahia askoz ezagunagoa izango dela esanahiaren oinarrian zer dagoen baldin badakigu, eta orohar, gogamenaren eta hitzaren arteko erlazio bat dela kontutan hartzen badugu, orduan eta bakarrik orduan irits gitezke interpretazioaren natura, izaera ezagutzera.

Esanahia eta edukia

Bi termino hauek ez dira berdinak, eta horregatik hauen azterketa bat egitea komeniko litzateke.

Bi termino hauen bereizketa zehatza egiteko, informazio-transmisio batean kokatuko gara. Bi pertsonen arteko informazio igorpenean kokatuko gara:

A-k B-ri honela esaten dio: "Ni filosofo naiz".

Edukia eta esanahia -A pertsona batek, c zirkunstantzietan, S perpausa erabiltzen duenean- egoera honetan aztertuko ditugu. Bi pertsonen arteko informazio-jarioan kokatutako egoeran funtsatuko gara.

Aurreko adibide honetan, perpausaren "edukia" "A mintzatzailea filosofo dela" suposatzen dugu.

Honetaz aparte, har dezagun, baita ere, eduki hau transmititzeko (S perpausa baten bidez eta c zirkunstantzia berezietan), erabilitako esanahiaz.

Adibidez, kontsidera dezagun, literatur munduan hain ospetsua izan den Hamlet obra eta honek esan nahi duena.

Noski, Shakespearek erditutako obra preziatuak, Bacon-en esku eta ikuspegi positibistaz idatzia izango balitz, honek ez luke aurreko autoreak emandako esanahi edo zentzu berdinek izango.

Idazle bataren eta bestearen nortasuna, psikologia, ingurunea desberdina denez, idazteko, sentitzeko, bizitzeko joera ere desberdina izango da. Shakespearek egoera berezi batean idatzitako testu honek bereziki esanahi bat duenez, orduan eduki bat izango du. Honela, badirudi, funtzio edo errepresentazio desberdinek, zirkunstantzia batzuen arabera, eduki desberdinak adieraziko dituztela. Beraz, esanahia eta edukia ez dira gauza bera izango.

Esanahia eta edukiaren arteko diferentzia hobeto ikusteko, beste adibide batera inguratuko gara: Suposa dezagun A-k B-ri filosofo dela esan eta gero, B-k Z-ri, A-ri buruz, honako hau esaten diola; bera (A) dela filosofo. Orduan, Z pertsona A-rengana joan eta esaten dio: ¡Beraz, zu filosofo zara!

Hiru pertsona hauek kasu bakoitzean egindako esaldiak desberdinak dira. Esaldi edo perpausa hauek esanahi desberdinak dituzte. Baina, halere, diferentzia hauen artean, badago zerbait berdina dena, alegia, "A pertsona filosofo dela"; guztietan edukia berdina izango da.

Orain arte ikusitakoarekin, emandako perpausen situazioen propietate abstraktu batzuen formalizazioa egitea beharrezkoa dela ondorioztatzen da. Intuitiboki, S perpausa bakoitzak, eduki bat izango du eta eduki hau bi faktoreren menpean egongo da: erabilitako S perpausa edo esaldia eta c zirkunstantziak, non erabilia izan den.

Beraz, puntu guzti hauek kontutan hartuta, honako formula hau aterako litzateke:

$C(S,c)$ (Zirkunstantzia batzuetan emandako esaldi baten edukia).

Ekuazio honen ideia, bere osotasunean eta suposatutako berrikuntzan aztertu behar da. Dударik gabe, ekuazio hau izango da teoria honen ekarpenik nagusienetako bat.

Oraintsu aipatutako A,B,Z, hiru pertsona horiek egindako perpausak,

hirurak situazio edo egoera desberdinetan egindakoeak, denek eduki berbera dute:

$$C(S_1, c_1) = C(S_2, c_2) = C(S_3, c_3)$$

Baina hau $C(S, c)$, zeinen edukia da?

Honi proposizio errealista deritzo. Jakina, P proposizioa, t denbora jakin batean, "A pertsona filosofo dela" aditzera ematen duena.

P proposizio hau, objektu abstraktu batekin parekatzen dugu, eta honen helburua, situazio edo egoera desberdinak ordena batean jartzean, P proposizioa egi bidean zuzentzea izan da. Azken batean, P proposizio honen esanahi egokia aurkitzea.

Objektu abstraktu baten erabilpenaren bidez, esanahiaren kontzeptuari itxura, forma "matematiko" bat eman nahi zaio.

Nolabait, gertakari posibleak, egoera edo situazio posibleekin errepresentatuko ditugu eta alderantziz ere bai.

Gertakari edo egite posible hauek laukoitz honen bidez adieraziko dira:

$$\langle\langle \text{filosofia, } A, t; \rangle\rangle$$

Honek, situazio edo egoera tipoa errepresentatzen du, non A pertsona filosofo den, t denbora batean. (A , erreal individuala izango litzateke, t denbora erreala, eta filosofo izatearen propietateak).

Aipatutako eduki hau $C(S, c)$ egia izateko, gisa honetako egoera edo situazio erreal bat izan beharko luke. Gehiago oraindik, $C(S, c)$ itxura honetako P eduki proposizional bat situazio-tipo batekin identifika dezakegu, eta proposizioa egiazkoa dela esan, tipo honetako situazio bat baldin badago errealitatean.

Eduki proposizionalaren $C(S, c)$ eskema horretan, S edo c , osagarriren bat aldatuko bagenu, eduki proposizionalak ere, bere mamian aldaketa substantzial bat izango luke. Adibidez; lehenxeago, Z -k egindako esaldia (filosofo zara), A pertsonari zuzendu ordez, B -ri zuzentzen baldin badio, orduan kasu honetan, bukaeran B pertsona agertuko litzateke filosofo gisa. Azkenean, guzti honek, perpausaren esanahiak, perpausaren edukia mugatzen duela pentsatzera bultzatzen gaitu.

Beraz, esanahia eta edukia kontzeptu berdintsuak direla eman arren, bien arteko diferentzia nabarmena da.

Perpaua baten esanahira hurbiltzea, S perpaua horren esanahia hartu $[[S]]$, eta gertatu izan den zirkunstantzien eta egoeraren edo situazio tipoaren arteko erlazio bat bezala ikustea da.

$[[S]]$ bba $C(S, c)$ tipo honetakoa bada.

Orduan, bai euskal edo bai erdal literaturaren interpretazioan, esanahia finkatzerakoan, faktore zirkunstantzialek eragin handia izan lezakete.

Are gehiago, behaketa honek, perpausa baten edukia ez dela mintzatzaileak buruan duen esanahiaz bakarrik determinatua izaten erakusten digu. Adibidez, "zu filosofo zara" perpausaren zalantzagarritasuna kontutan hartu beharrekoa da. Batzuentzat "filosofoa" lanbide akademiko bat den bitartean, beste batzuentzat ordea bizitzaren aurrean harturiko jarrera bat izango da. Horregatik, gure helburua edukia finkatzea denean, zirkunstantzien garrantzia ezinbestekoa izango da.

Zirkunstantzien egitura

Jarraian, aztertutako esanahi- eta eduki-kontzeptuetan, eragin handia duten zirkunstantzien egituraren barneratuko gara. Honetarako lehenik, zenbait gauza kontutan izan beharko ditugu:

1) S perpausaren zenbait marka edo seinale oso garrantzitsuak izan litezke, edukia egituratzen lagundu dezaketelako. S perpausa ahoskatua denean, seinale hauek ahoskatze horretan nabarmen ditzazkegu. Hau erraz ikus daiteke antzezpen-lanetan, tonu eta stressaren adierazpenaren bidez.

2) Edukiaren subjektuaren nozio bat behar dugu. Hau, proposizioa karakterizatzeko erabilitako gertakari posibleen elementuren bat izango litzateke. Horregatik, elementu hauei edukiaren osagaiak deituko diegu.

Oraintsu esan dugun bezala, zirkunstantziek (c) edukia mugatzen

lagundu dezakete. Zirkunstantzia hauek lau multzotan sailka ditzakegu:

- Edukiaren osagarri artikulatuak: Orokorrean, "Ni", "Zu", "hemen", "orain"... bezalako gauzen interpretazioak mugatzen dituzte.
- Osagarri ez-artikulatuak: Kategoria honetan, egoera, kokapena,... bezalako elementuak aurkitzen ditugu.

Adb; "Euria ari du"

- Ez-osagarri artikulatuak: B pertsona batek A beste pertsona bati "har ezan makila" esaten dionean, A bigarren pertsona hori emakume dela antzematen da. "Ezan" elementu hori artikulatua da baina ez da osagarri bat.
- Ez-osagarri ez-artikulatua: Lau garren maila honetan, azpiko suposizioak aurkitzen ditugu; edukia mugatzen laguntzen duten azpiko suposizioak. "Urtebetetze" hitza har dezakegu adibidetzat. Hitz honen esanahia guztiok ezagutzen dugu. Azpiko konbentzio bat izango da.

Jadanik, esanahi, eduki eta zirkunstantzien arteko erlazioaren laburpen bat egin dezakegu. Halere, aurrera baino lehen aipagarria den beste parametro bat ahaztu dugula esan beharra dago.

Parametro hau, komunitate linguistikoak ezarritako R konbentzioen multzoak osatuko luke. "Constraints" izenaz ezagutzen ditugun konbentzio hauek elkarrekikoak

izatearen propietatea betetzen dute. Hain zuzen, propietate hau izango da, pertsona guztien artean komunikazioa, informazioa posible izaten laguntzen duena.

Beraz, esanahia finkatzeko ahal-eginetan, oraintsu ikusitako lau parametro hauen arteko (S perpausa, P edukia, c zirkunstantziak, eta R constraints-ak) erlazioak, aipatutako ekuazio honetara eramaten gaitu.

$$I) C_R(S,c) = P$$

Ekuazio honetan, lau parametroen artean, "elkarrekikoak izatea" propietatea ematen da eta hain zuzen erlazio honek emango dio formulari bitxitasuna.

Baina hau hobeto ikusteko beste ekuazio baten berri emango dugu:

Kontsidera dezagun ekuazio bat, zeinak, t denbora jakin batean, s bateztesteko abiaduraz, d ibilitako distantzia ematen digun. (t_0 hasierako denbora izanik)

$$II) S(t - t_0) = d$$

Formula honen elementuak elkarrekiko constraints-ak direnez, matematikaren arau batzuei esker, d, S, t, t-ren balioak lortzea badago. Balio bakoitzari buruzko informazio partziala konbina dezakegu, azkenean denen balio osoak lortuz.

Zerbaiti buruzko informazio partzialak, denari buruzko informazioa ematen digu.

Bigarren ekuazio honen bidez (II), lehenengo ekuazioaren garrantzi handia goraiatzea da gure helburua. Ideia hau oso sinplea dela dirudi baina era berean oso garrantzitsua, batez ere, edukia, esanahia, zirkunstantzia eta konbentzioen arteko harremana ikusteko. Situazioen teoriaren ustez, literatur testu baten esanahi egokiaren lorpenak, oinarrizko erlazio honen ezagutzatik abiatu beharko luke. Ondorioz, erlazio hau esentziala izango da.

Baina, hautemate hauetatik, alegia, eduki eta esanahiaren arteko erlazioa ikustetik, nola irits gintezke literatur obra oso baten esanahia ulertzeraz? Nola irits gintezke hain urrutira?

Jakina da, esaldien artean diferentzia asko dauden bezala, testu edo liburuen artean ere, diferentzia handiak daudela. Adibidez, historiako liburu eta linguistikako liburu baten artean, desberdintasun zirkunstantzialak nabariak izango dira. Bestalde, kalean lagunartean hitz egitean erabiltzen dugun hizkuntza eta literaturan erabilitako hizkuntzaren artean ere etendura nagusi bat dago.

Beraz, nola gaindi ditzakegu arazo komun hauek?

Galdera honen erantzuna, hasieratik aurkeztu nahi izan dugun ekuazio horretan egongo da.

Irakurle batek libururen bat hartzen duenean, jakin badaki arazo askoren aurrean topatzen dela. Zer esan nahi du autoreak? Zein da edukia, mezua?

S liburu bateko edozein irakurlek, lautik hiru (R, c, P) balio ezagutzen ez dituen ekuazio batekin aurkitzen da.

Noski, ekuazio honentzako soluzio bat egon badago. Oraintxe ikusitakoarekin, irakurle edo interpretearen egitekoa, informazio partziala erabiliz, informazio osoa lortzea izango da. Ohizko irakurleari, beste gauza batzuen artean, hiru parametro ezezagun horien balioak beste parametroen menpean dauden ala ez ezagutzea eta beraien ordena aztertzea interesatzen zaio.

Jakina, hau erraz esaten da! Baina irakurle batek nola aurki dezake erlazio hori?

Bide bat, balio-sorta batekin saiatu eta emaitzak ikusutea izango litzateke. Fisikan, adibidez, bide honi esperimentazioa deituko genioke. Literatur testu baten interpretazioan, ordea, non dago fisikan esperimentuak egiteko erabiltzen den laborategia? Norberaren irudimen edo imaginazio kritikoa.

Norberak bere irudimenarekin lan egin behar du. Irakurleak, eduki desberdinak eta zirkunstantziak kontutan harturik, ekuazio honen berdinketara $C_R(S, c) = P$ iristen saiatu behar du. Horretarako, lan honetan, R parametroa, konbentzioen multzoa dela ez ahaztea komenigarria da, nahitaez, parametro hauek, entzule eta hizlariarentzako ezagunak izan behar dutelako.

Amaitzeko esan behar da, lan honen asmoa ez dela azken esanahira iristea, hau sortzaile edo egilearen menpean bakarrik bait dago. Gure asmoa, batipat, benetako esanahira hurbiltzea, hondoraino joatea izan da, honetarako aipatutako ekuazio honen laguntza ezinbestekoa izanik.

Idea hau, Situazioen teoriatik hartuta dagoena, Jon Barwise eta J. Perry-ren filosofi lanen oinarrietatik abiatuta eraikita dago.

Teoria honen defendatzaileek, ohizko logika formaletik urruntzen den logika "situatu" batetik hasiz, esanahiaren, interpretazioaren, informazio-jarioaren, situazioen, ... garrantzia aldarrikatzen dute.

Azken batean, arazoa beste ikuspuntu batetik planteatzen hasia dela dirudi. Hau da, orain arte, literatura bezalako gai tratagaitzak, ikuspegi berri honetatik, alegia, logika situatu batetik, maneiagarriago bihurtu nahi dituztela ematen du. Halere, honek, txanpon guztiek bezala, bi aurpegi izango ditu.

Egun, hizkuntzaren filosofian behintzat, behakuntza interesgarrienak bide honetatik egiten ari direla esatea, egia handia litzateke. Dena den, arlo honetan ere, bidearen hasieran besterik ez gaude.

Bibliografia

ALVAREZ ENPARANTZA, J.L.; *Leturiaren egunkari ezkutua*, Elkar, 1985.

BARWISE, J.; *The Situation in Logic I: Logic, Meaning and Information*.
Stanford: CSLI Publications, 1984.

BARWISE, J. and PERRY; *Shifting Situations and Shaken Attitudes*.
Linguistics and Philosophy, Stanford: CSLI Publications, 1985.

BARWISE, J.; "Information and Circumstance: A Reply to Fodor". *Notre
Dame Journal of Formal Logic*, 1986.

BARWISE, J.; *The Situation in Logic*, 3. kap. "On the Circumstantial Relation
between Meaning and Content", CSLI Stanford, 1989.

BORGES, J.L; *Laberintos*.

KNAPP, S., & Michaels, W.B.; *Against Theory, Critical Inquiry*, 1982.

SCHACHT, P., *Authorial Intention and the Interpretation of Literature*.
Unpublished paper. CSLI and Department of English, State
University of New York.